

Kutxabanken hipoteka-zedulek DBRSren baloraziorik altuena lortu dute

- Agentziak 'AAA' mailan kokatu ditu, bankuaren hipoteka-zorroaren aniztasun geografikoa eta bermeen gain-maila handiak aintzat izan ondoren
- Aitortza beste nazioarteko agentziek emandako balorazioen igoerei gehitu zaie

2023ko ekainaren 5ean. DBRS Morningstar kalifikazio agentziak Kutxabanken hipoteka-zedulei baloraziorik altuena eman die, bere lehen azterketan 'AAA' mailan jarri baititu.

Kalifikazio-agentziak bere azterketan kontuan hartu ditu hipoteka-zedulei buruzko Espainiako legedia, Espainian eta Europar Batasunean aplikatzen den ebazpen-araubidea, baita jaulkitzailearen zedula-programaren alderdi zehatzak ere.

Honela, positibo iritzi dio Kutxabankek etxebizitzetara bideratutako hipoteken aniztasun geografikoari, per capita errenta handiena duten lurraldeetan ematen baitira, hala nola Euskadin (% 44,5), Madrilen (% 26,9) eta Katalunian (% 12,4), besteak beste. Gainera, programaren bermeen gain-maila nabarmendu du, % 69,8raino heltzen baita, gutxiengoa % 5ekoa izanik.

Kutxabankek gaur egun jaulkitako hipoteka-zedulen zenbatekoa 1.250 milioi eurokoa da, hiru jaulkipenetan banatuta. Arau-esparru berriaren arabera sortutako estalduraren bolumena 2.123 milioi eurokoa da, eta bere oinarriko aktiboa guztiak, % 100, lehen mailako hipoteka duten etxebizitza-maileguak dira, batez beste % 54ko LTV ponderatuarekin.

DBRS-k Kutxabanken hipoteka-zedulen programazioak jaso duen balorazio on hau, joan den urtarrilean Bankuak jaulkitako zor seniorrak jaso zuen kalifikazio positiboari gehitu zaio, hau "A" mailan (bikaina) sailkatu baitzuten Taldea baloratzen duten hiru agentziek, hau da, Moodys-ek, Fitch-ek eta DBRS-ek (A3/A-/A Low).

ESG arriskuen ebaluazioan, Morningstar Sustainalytics rating agentziak mundu osoan ebaluatutako 1.000 banku baino gehiagoren artean 27. postuan kokatu zuen Kutxabank, bai eta aztertutako 15.000 enpresa baino gehiagoren balorazio onena lortu duten enpresen % 1ean ere.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako banku nagusia da. 700 bulego baino gehiago ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilen eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.